

GIZAKIA ere ANIMALIA da

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Izenburua aldarrikapen bat da. Jesús Mosterín filosofoak oso gustuko ditu animaliak, eta liburu honetan antzematen zaio. Gizakia animalia da, gogoratzen digu, eta horretaz jabetu egin behar da. Biologiaren ikuspuntutik da animalia, bai eta jokabidearen ikuspuntutik ere. Hain zuzen ere, liburu hau, gizakiari buruzkoa izan gabe, gizakiaren animalia-senari buruzko gogoeta egiteko aproposa da.


Egilearen hitzetan, liburua “zientzia, filosofia, dokumentazioa eta gogoeta etikoa biltzen dituen nahaste bat da”. Bi zati nagusi ditu. Lehenengoak animaliak gorai patzen ditu, eta bigarrenak, berriz, animalien aurkako krudeltasuna salatzen du. Lehenengoa zientziatzat beteta dago, eta bigarrena filosofiaz. Eta bi zati horien bitartez, egileak dibulgazio-lana egiten du, eta, horrekin batera, animalien etikari buruzko iritzia ematen du.

Lehen zatia biziaren sorreratik abiatzen du. Gero, animalien erreinua aurkezten du, bizidun-talde horren eboluzioa azalduta. Horretaz gain, nerbio-sistema, zentzumenak eta ingurari egokitzeko ahalmena aztertzen ditu. Eta mina eta heriotza. Azkenik, primateen nagusitasuna aztertzen du.

Hortik aurrera, liburuaren bigarren zatian, Mosterínek animaliekin zerikusia duten alderdi etikoei buruz idazten du. Gaitzat hartzen ditu gizakiaren eta beste animalien arteko harremana (txakurren kasutik abiatuta aztertzen du), ikuspuntu antropozentrikoaren eragina, laborategiko animaliak, jateko hazten ditugun animaliak eta animalien tortura. Azkenik, animalien eskubideei buruz hitz egiten du, eta gogoeta ekologiko zabal batekin bukatzen du liburua.

Mosterínek idatziei ematen dien balio erantsia da zientzian jantzia dagoen filosofo baten ikuspuntua dela, eta pentsamendu oso argia duen idazlea dela. Animalien gaiaz gain, idazle honek asko idatzi du filosofiari buruz, pentsamenduen historia ere tratatu du, baita zientziaren eta matematikaren axioma-multzoari buruz ere.

Azken argitalpenetan, animalien gaiaz ere idatzi du kulturari buruzko liburu batean. ¡Vivan los animales! Jesús Mosterínen liburuetako bat besterik ez da, baina haren pentsamenduen eredutzat hartzeko modukoa. ●



i

¡Vivan los animales!

Jesús Mosterín

Ed. Debate

210 x 143 mm

ISBN: 84-8306-141-4